



2022 – 2023 IKASTURTEKO IZEN EMATEA

IZEN EMATEA

1. Urte honetan honako hauek egin ahalko dute izen ematea:
 - a. Entitateak
 - b. Guraso edo tutoreek.
2. Bizkaiko Foru Aldundiko plataforman sartu eta IZENA EMATEKO JARRAIBIDEAK jarraitu.
3. Behin **Erabiltzailea eta Pasahitza** aktibatuta dituzuenean, inskribatu nahi dituzun parte hartzaileen datuak sartu.
4. Soilik **2005 eta 2014** urte bitartean (biak barne) jaiotakoak baino ezingo dute izena eman
5. Federazioari ez zaio ezer ordainduko, honek izen ematea onartu arte.
6. Hipika zentroen artean zein hautatu nahi den adierazteko aukera egongo da
7. **Izena emateko epea 2022ko Irailaren 12ko 15:00etatik aurrera.**
8. Esleipena izen emate ordena jarraituz burutuko da, Bizkaiko Foru Aldundiarekin lortutako hitzarmenaren arabera, hurrengo izen ematean itxaron zerrenda batera pasako dira.
9. Izena ematen duenak soilik ikastaro batez gozatu ahalko du, sistemak ez die izena ematen utziko aurretik ikastaroez gozatu dutenei. Horretarako Eskola Kiroleko eta Federazioaren izen emate osoko identifikazio zenbakiak errebisatuko dira.
10. Behin pausu hauek burutu ondoren, Federazioa Ikastetxeekin eta gainontzeko onuradunekin harremanetan jarriko da Federazioko kontu korrontean ordainketa egin ahal dela adierazteko, horretarako on-line plataforman ikastetxe bakoitzeko ikasle guztien ordainagiriaren kopia bat erantsia edo banakako izen ematea den kasuetan, ikaslearen izena adierazi beharko dute.
11. Ikasle bakoitzak **60 Euro** ordainduko ditu. Guraso Elkarte/ikastetxeen kasuan ordainketa bakarrean egingo dutelarik. Hastapen ikastaroa denez, ezingo zaie Hipika Zentroei maila goragoko ikastarorik eskatu.
12. Federazioa arduratuko da izen emateak ikusi eta onartzeaz eta baita Hipika Zentroa esleitzeaz, horiekin data eta ordutegia adosteko.
13. Ikastaroaren eduki Teoriko/Praktikoa Federazio honek definitzen du eta www.fbizkainahipika.eus helbidean dago argitaratua.
14. Behin ikastaroa hasita ezingo da diru itzulketa edo Hipika Zentroa aldatzea eskatu.
15. Edozein arrazoiengatik zenbatekoaren itzulketa eskatzen bada, bankuko gastuak kenduko dira. lagapenari dagokiona.